


BAI SAREAKo **vademecuma**

LATINETIK VADE, 'IBILI', ETA MECUM, 'NIREKIN'

Esku artean duzuna sarean sortu dugun
hiztegia da, gure erakundeetan berdintasunaren
alde lan egiten ari garen bidelagunok ditugun
kontzeptu horiek guztiak biltzen dituen.

komunikazio berdingilea

BAI SAREAn





* def.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea bilatzen duen komunikazio-ikuspegia da. Komunikazioa kontzienteki eta arduraz erabiltzea du xede, genero-estereotipoen aurre egiteko eta genero-desberdintasunak eta diskriminazioa ezabatzeko. Emakumeen eta talde minoritarioen edo azpiordezkatuen ahotsa integratzea bilatzen du, pertsona guztiek komunikazio-prozesuetan parte hartzeko eta entzunak izateko aukera izan dezaten bermatzeko.

* osagaiak

feminismoa | 200mg hizkera inklusiboa | 50mg umorea | 50mg
intentzioa | 150mg sormena | 50mg

* formatuak

Berdintasuna sortzen duen komunikazioa edozein hizkuntzatarara egokitzen da, euskaraz zein gaztelaniaz erabil dezakezu. Hitzik gabeko komunikazioarentzat ere oso gomendagarria da, irudiei, keinuei eta isiltasuneiei arreta jartzen baitie. Gainera, onura berberak ditu komunikazio-formatu guztietan: online eta/edo aurrez aurre, idatziz eta/edo ahoz.

* efektuak


Eraldaketa | zehaztasuna | aliantzak | gatazken murrizketa | berdintasunerako sentsibilizazioa | BAI SAREA indartzea

* erabilerak

Maila pertsonalean	Begirada zabaltzea, entzute aktiboa
BAI SAREAn	Proposatu, partekatu, erantzun
BS Erakundeetan	Gardentasuna, topaguneak


* irakurketa erraza

Berdintasunean oinarrituta erlazionatzeko komunikazio-modu bat, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko tresna bat da. [Komunikazio feminista] ere esaten zaio.



lidergo feminista

BAI SAREAN





* def.

Lidergo mota bat da, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta lan-eremuan dauden genero-arrakalak murriztea helburu duena. Lidergo eraldatzailea da, ikasi eta garatu egiten dena, eta erakundean zein gizartean aldaketa sustatzea bilatzen duena. Planifikazioan eta erabakiak hartzerakoan emakumeen eta kolektibo minoritarioen parte-hartze aktiboa sustatzen du.

* osagaiak

feminismoa | 200mg

ahalduntzea | 50mg

agentzia | 50mg

egiturazko ikuspegia | 100mg

aitortza | 100mg

* formatuak

Lidergo feminista formatu zirkularragatik nabarmentzen da, goitik behera eta behetik gora gauzatu daiteke, eta biak alde berean ere eman daitezke, elkar elikatuz. Oso interesgarria da, halaber, bere formatu hedakorra, lantaldeetan beste lidergo batzuk inspiratzeko, irakasteko eta bultzatzeko gaitasuna baitu.

* efektuak

Erreferente feministen komunitatea | konponbideen politizazioa |
berdintasunerako erakunde-kultura | arrakasta-ereduak desmitifikatzea

* erabilerak


Maila pertsonalean	Desberdintasunaren kontzientzia, feminismora hurbiltzea
BAI SAREAn	Indibidualtasunetik kolektibo eta politikora pasatzea
BS Erakundeetan	Estrategia feminista, Berdintasun Plan eraginkorrak

* irakurketa erraza

Berdintasunerako lidergo eraldatzaileari ere deritzo.

espazio seguruak

BAI SAREAN





* def.

Berdintasunarekin konpromisoa duen lan-ingurunea da, gorputz desberdinentzat inklusiboa eta eroso dena. Indarkeriarik, jazarpenik eta diskriminaziorik gabeko gunea da, non pertsona guztiak errespetatuak, aintzat hartuak eta partaideak sentitzen diren, sexua eta beste aldagai batzuk edozein direla ere (genero-identitatea, arraza, adina, etab.). Ideiak, erabakiak eta akatsak partekatzeko lekua ere bada.

* osagaiak

feminismoa | 200mg irisgarritasuna | 50mg gardentasuna | 50mg
elkarbizitza | 100mg zaintzak | 100mg

* formatuak

Espazio seguruak fisikoak zein digitalak izan daitezke. Formatu fisikoan, erakundearen instalazioak nabarmentzen dira, baina beste tokietan ere sor daitezke, hala nola, zerbitzuak lantokitik kanpo edo beste erakunde batzuetan eskaintzen direnean. Batzuetan autoz egiten ditu joan-etorrietan, egun batzuetako bidaietan edo otorduetan ematen dira. Formatu digitalean, online bilerak, webinarrak eta whatsapp taldeak nabarmentzen dira.

* efektuak



Osasuna | kide izatearen sentimendua | konfiantza | ausardia | sormena | gozamena | talentua garatzea | berdintasuna

* erabilerak

| Maila pertsonalean | Erlaxatu, azaleratu, garatu
| BAI SAREAn | Proposatu, iritzia eman, probatu, sortu
| BS Erakundeetan | Laneko arriskuen prebentzioa

* irakurketa erraza

Indarkeriarik, jazarpenik edo diskriminaziorik gabeko lan-ingurunea.



inter sektzio naltatea

BAI SAREAN

u



* def.

Errealitatearen aniztasuna azaleratzen duen ikuspegi bat da, ardatz ezberdinen gurutzaketaren bitartez (hauek ez baitira inoiz modu isolatuan ematen) botere-harremanak eta diskriminazioak non dauden identifikatzen dituen. Izan ere, generoaz haratago, badira beste dimentsio batzuk ere, arraza, adina edo klasea, esaterako, generoarekin gurutzatuta pribilegio eta zapalkuntza/erresistentzia egoerak sortzen dituztenak.

* osagaiak

feminismoa | 200mg kategoriak | 50mg gurutzaketak | 50mg
testuingurua | 150mg egiturak | 50mg

* formatuak

Ikuspegi intersektzionala erakunde baten ekintza edo arlo guztietarako da erabilgarria, eta hainbat formatutan aplika daiteke. Eraginkorra da datu bereiziak biltzeko, ebaluazio-adierazleak asmatzeko, berdintasun-neurriak diseinatzeko, komunikazio-elementuak gauzatzeko, egitura koordinatuak sortzeko, parte hartzeko dinamikak abian jartzeko edo sentsibilizazio-tailerrak emateko, besteak beste.

* efektuak


Zehaztasuna | inklusioa | eraginkortasuna | aniztasuna aitortzea | arrakalak murriztea | galdera berriak | angeluitsuak ikusaraztea


* erabilerak

| Maila pertsonalean | Pribilegioak antzeman
| BAI SAREAn | BS tresnen diseinua, parte hartzeko dinamikak
| BS Erakundeetan | Datuak bildu eta aztertu, planak diseinatu eta ebaluatu

* irakurketa erraza

Desberdintasunak eta botere-harremanak agerian uzten dituen begirada.






komunikazio berdingilea




lidergo feminista






espazio seguruak



intersekzionalitatea



oharrak



BAI SAREAKO **vademecuma**



2023

